



Espero baino artisau gutxiago bildu dira aurten Leitzako azokan

PARTAIDETZA ▶ 27 postu atondu zituzten plazan, aurrez 37 artisauk izena emanda zuten arren ▶ 5



Jende ugari hurbildu zen egunean zehar plazan zeuden postuak ikustera. N. GARZIA

LIZARTZA ▶

Ina Zeberio hil zutenetik 9 urte bete dira gaur

Ertzaintzak tiroz hil zuten Gernikan ▶ 6

ALBIZTUR ▶

‘Bota patsa’, Kultur Astearen ekitaldirik «arrakastatsuen»

«Lekuz ere eskas ibili ginen antzerkian», azaldu du Labakak ▶ 4



«Partaidetza txikia» Araxesko mendi itzulian

TOLOSA ▶ Araxesko mendi itzuliaren zortzigarren edizioan 45 lagunek hartu zuten parte iaz baino 30 gutxiago ▶ 2

ceipro
Diseinua eta kreazioa halmenean
oinarritutako heziketa

- DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA
IRAILPENA - 2. Kasurte / 2000 ordu
SARRERA - LUR - LH1 - EE I - edo HSAOL BAZKILERGIA gaituz
- ARTE GRAFIKODEN AURBEINPRIMAKETAN TEKNIKARIA
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN
GEOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA
IRAILPENA - 2. Kasurte / 2000 ordu
SARRERA - 2. DBE - LH1 - EE I - edo OBE gaituz

Hango Prozedurak, BE
 20000 Orenetan
 Dapurak
 Tel: 944 210 8178
 Fax: 944 210 8178

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak moztzeko eskubidea du

Tolosan Udal demokratikoa osatzeko unea da

Markel Olano EAJren ahaldua nagusigaiaren esanak Gara egunkarian maiatzaren 20an: «Hori da, gizartearen zati garrantzitsua bat baztertua uztean hau ordezkari politikorik gabe egotearen egoera ez-demokratikoa errepikatzen da. Guk, honi buelta emateko gure eskuetan dagoen guztia egingo dugun». «Alderdiaren Legearen aurkako jarrera sendoari eutsi dio beti EAJk. Gehiago esango nuke: beti esan izan dugu, ezker abertzaleak bide politikoa eta demokratikotik joateko behin betiko apustua egitea behar du herri honek. Horretarako, gakoa da, hauteskudeetan baldintza berdinetan parte hartu ahal izatea».

Carlos Jimenez Villarejo fiskal nagusi izandakoak Espai-

niako Auzitegi Konstituzionalak EAE-ANVren zerrendak baliogabetzea «arbuio sendoa» merezi duela uste du, «salbuespen egoera unibertsalizatu egin duela uste du, aukeratuak izateko eskubidea urratzeko, pertsona horien kontrako epai irmo bat egon beharra dagoela ekarri du gogora». Tolosako EAE-ANVko zerrendako inor ez zegoen egoera horretan, inor.

Tolosan egoera antidemokratikoa gertatu da. Hauteskunde hauetan ezker abertzaleak ezin izan du parte hartu baldintza beretan parte hartu.

EAE-ANVren botorik ez zegoen hauteskunde-mahaia; telebistako eztabaidetan ezin izan du parte hartu ilegala omen zelako; botoa ematerakoan herritarrak ez zekien zinegotzi izan ahal izango zuten ANVkoek; hortaz, paso egiteko aukera askoz handiagoa;...

Estatuko fiskal buruak esana: «Agian gehiegizkoa da egin

duguna, baina sinestu egin dute».

Villabonan bai, Tolosan ez, Anoetan bai, Ibarren ez...: tonbola galanta. «... baina sinestu egin dute» Hau onartu behar al du Tolosako herriak?

Jokin Bildarratzek esanak Galtzaundi aldizkarian maiatzeko alean: «Hala ere, direnak eta ez direnak egingo ditugu, legez eduki ez duten aukera emateko, hau da, dagokien ordezkari izateko. Hau guztia baldintza batekin: Udalak ondorio legalik ez izatea hemen hartzen diren erabakiak direla eta».

Pozgarria EAE-ANV ordezkari izateko Tolosako alkatagatik agerturiko gogo bizia: «Direnak eta ez direnak egingo ditugu... dagokien ordezkari izateko».

Bada bide erraza hori lortzeko: Ley Organica 5/1985 Regimen Electoral General delakoaren 182.2 artikulua erabiltzea. Lege honen bidez ondorio le-

galik ez da izango Udalak hartutako erabakietan; beraz, alkaterearen baldintza bakarra beteta geratzen da.

Herriaren botoak aintzat hartuta, EAE-ANVko lau tolosar hauei badagokie ordezkari: Antton Izagirre, Eider Elduaen, Hektor Espin eta Silvana Ostizari.

Beste lau pertsona hauek (Jose Agustin Arrieta, Iñaki Irababalbeitia, Jose Miguel Gomez eta Jose Luis Vilanova) hartuko ez balute zinegotzi postua, lehentxeago aipatutako 182.2 artikularen bidez, EAE-ANVko lau tolosarrek har dezakete herri honen botoen eta nahieren arabera dagokien postua.

Aurreko legealdian Azkoitian halaxe egin zuten; hortaz, Tolosan egin ezinik ez dago.

Tolosara demokrazia ekartzeko garaia da, lau urte demokraziarik gabe aski baitira, nik uste. Conde Pumpidotarren burlari aurre egiteko garaia da, eta horretarako bidea izan,

bada. Gogoa eta demokrazia izanez gero, oso erraza da.

Elkarbizitza egokiak tolosar guztien botoei errespetua eskatzen du.

Lau urteotako burlak eta demokrazia faltak haserrearekin areagotu dute. Gorrotoa nagusitu aurretik, demokrazia behar du Tolosako herriak, eta Berastegiko Muñagorrik zioena gerrarengatik bere «proklamian» esan daiteke gorrotoaz: «Ez dakar onik, inundi, inundi inora».

Hauteskunde kanpainan esandakoak betetzea garrantzitsua da, «hitza hitz»: euskaldunaren legea.

Denon esku dago Tolosako Udalera demokrazia ekartzea: biderik bada.

Eskerrik asko alde aurretik, eta sanjoan demokrazia ospatzeko aukera izan dezagula. Tolosar guztien botoek berdindu balio ditzatela! Hala bedi!

IÑAKI AZALDEGI (EZKER ABERTZALEKO KIDEA) ▶ TOLOSA

TOLOSA ▶ KIROLAK

Araxesko VIII. mendi itzulian partaide gutxi

Eguraldiak lagundu bazuen ere, 45 pertsona bakarrik aurkeztu ziren

ESTI EZEIZA

Igandean, Amaroako Auzo Elkarrekin antolatutako Araxesko mendi ibilaldia izan zen. Itzulia bi urtetik behin egiten dute, eta aurtengoa VIII.a izan da. Denera 46 pertsonak hartu zuten parte, duela bi urtekoan baino 30 gutxiago. Hauetatik, %10 nesak ziren, eta gainontzekoak mutilak. Eskualdeko jendeaz gain, Elgoibar, Zumaia eta Zumarragako jendeak ere hartu zuten parte. Antolatzaileen esanetan, «orokorrean aurtengo mendi martxetan jende gutxiago ari da hartzen parte, eta asteazken zehar eguraldi txarra izateko eragingo zuen».

Amaroako azpimarratu duten puntu nagusia «partehartze txikia» izan da. Hurrengo edizioerako honen inguruan hitz egin eta hausnartuko dute la adierazi dute Amaroako Auzo Elkarrekin. Bestalde, estreneko, kontroleko mahaia guxiengo denbora baino ordu

bete beranduago itxi zuten. Hau da, denbora gehien behar izan zutenek ere, 10 orduren bueltan egin zuten ibilaldia. Bakarra izan zelarik ibilbidea amaitzea lortu ez zuena, «Horrek adierazten du gero eta prestatuagoa dagoela jendea».

Ibilbidea aurreko urteetakoan berdina izan zen. 07:00etan Amaroetik atera, eta hementik, Ollaun menditik barrena Altzora igo ziren, jarraian, otsabiora igoz. Handik jaitsiz, Zaratetik igaroz Azkarate herrira ailegatu ziren. Gero, Atallu-Arribetik Santa Barbara ermitara igo ziren, Gorriti, Musao eta Merku pasatuta, Ulizar mendi gailurrera, eta handik, Uli, Gaztelu eta Leaburutik, Amaroizera, ibilaldiari amaiera emanaz.

Parte-hartzaileek beren txartelak zigitatu behar izan zituzten bidean jarritako sei kontrolletan. Horieta batzuetan jantaria eta edaria zuten, indarrak hartzeko.



Ibilbidean zeuden sei kontrolgunetatik igaro ziren kirolariak. HITZA



Bederatzi ordu inguru behar izan zituzten parte-hartzaileek. HITZA

ASTEASU ▶

Europako Ipuinen Jaialdian da Atxaga

Kroazian ospatzen da; euskal literaturaren ordezkari bezala joan da bera jaialdira

E. EZEIZA

Bernardo Atxaga eta Juan Manuel Prada idazle euskaldunak, Carlos Aguilera kubatarrekin batera Zagreben (Kroazia) dira Europako Ipuinen Jaialdian. Ipuinen seigarren jaialdia Split-eko portuan ospatuko da, eta hilaren 9ra arte luzatuko da. Bertan, irakurketa saioak, hitzaldiak, tailerrak... izango dira. Aurtengo gai berezia guxiengoan hizkuntzetako literatura handia da. Hori dela-eta euskal literaturaren, maltakoaren, galiarraren, eta islendiakoaren ordezkariak joan dira bertara.

Euskal ordezkarietako batera, Juan Manuel de Prada bere lanak aurkeztuko ditu. Horretan ariko dira ere, Mendebaldeko Europakoak eta Balkanetakoak. Azken honen adibide da Carlos Aguilera, kroaziarrez 2005ean argitaraturiko ipuin kubatarren antologiako hautatzailea.

KULTURA ▶

Ekaina ere, ekitaldiz blai

Ekitaldi ugari antolatu dituzte hasi berri dugun hilabeterako; horien artean dira, tailerrek eskainiko dituzten ikasturte amaierako ikuskizunak eta erakusketak

ERREDAKZIOA

Erakusketak, ikuskizunak, kontzertuak, pelikulak, hitzaldiak... ekainean ere izango da Tolosako hainbat guneetan ekitaldi ugari gozatzeko aukera.

ARANBURU JAUREGIA

Nestor Basterretxea eta Iñaki Epelderen erakusketa. TEEn 40. urteurreneko ekimena da. Hilaren 30era arte izango da ikusgai.

Kultur tailerretako ikasleen erakusketa. Hilaren 30era arte ikusgai.

KULTUR ETXEA

Euskal Bizikleta. Antolakuntzaren bulegoa jarriko dute hilaren 8an.

Sakramentinoen mendeurrena. Hitzaldiak izango dira hilaren 14, 15 eta 16an, mendeurrena dela eta, Anthony Mc Sweeney-rekin, 20:00etan.

Uxola sariak. Banaketa ekitaldia hilaren 13an, 18:00etan.

Xake torneo. Hilaren 17an 10:00etatik aurrera.

Odol-ematea. Odol Emaileen hileroko odol ateratzea, hilaren 18an, 18:00etan.

Minbiziari buruz hitzaldia. Hilaren 20an, Minbiziaren Aurka elkarrekin antolatuta.

LEIDOR ARETOA

Zine foruma. 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak.



Urtero bezala, dantza tailerrekoek emanaldia eskainiko dute. i. r.

▶ *Apaga y vamonos* (Manel Mayol), etzi, Aste Berdearen egitarauaren baitan.

▶ *Ariane* (Billy Wilder).

▶ *Arca Rusa* (Alexander Sokurov) eta *Eramos pocos* (Borja Cobeaga) laburmetraia.

▶ *Iberia* (Carlos Saura).

Dokumentala. *Una verdad incomoda* (Al Gore), hilaren 8an, 19:30ean, Aste Berdearen baitan.

Zinema.

▶ *Seduciendo a un extraño*, hilaren 8tik 11ra.

▶ *La telaraña de Carlota*, gaztetxoentzako filma, hilaren 9an eta 10ean.

▶ *La maldición de la flor dorada*, hilaren 16tik 18ra.

▶ *Shrek 3*, hilaren 29tik uztailaren 2ra.

Ahots Bidaztiak. Galtzaundi euskara taldeak antolatuta, hilaren 15ean, 22:00etan.

Dantza tailerrekoen ikuskizuna. Hilaren 16an, 18:00etan.

Antzerki tailerreko ikuskizuna. Hilaren 22an, 20:00etan.

BESTEAK

Aste Berdea. Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren inguruko egitaraua, Udal Ingurugiro Departamentuak antolatuta, hilaren 8ra arte.

Ipuin kontaketa saioa. Gaur, 18:00etan Errotan. Kometa tailerra ere izango da, eta klima aldaketari buruzko liburu erakusketa izango da ekainaren 8ra arte.

Euskal Bizikleta. Hilaren 8an, Euskal Bizikletako etapa Tolo-

san amaituko da, eta 9an, larunbata goizean, etaparen irteera.

Izaera + Vision Tunel. Hilaren 9an, Bonberenean izango da kontzertua, 22:30ean.

Bedaioiko I. Mendi Martxa. Hilaren 10ean, 07:30ean, Artubi elkarrekin antolatuta.

Mountain Bike Proba. San Blas auzoan, hilaren 10ean, 09:30ean.

Anari. Hilaren 10ean, Bonberenean, 19:30ean.

Haur liburutegiko festa. Ikasturte amaierako jaia, hilaren 15ean izango da: 17:00etan jolasak eta kaleko haur liburutegia, 18:30ean txokolata.

Udaberriren 50. urteurrena. Dantza taldearen 50. urteurreneko belaunaldien emanaldia hilaren 16an izango da. Kalejira egingo dute Alde Zaharrean, eta plaza guztietan dantza bana.

Sanjoanetako Azoka. Hilaren 16an izango da Azoka Berezia eta Azoka Ekologikoa, herrian zehar.

San Joan jaiek. Hilaren 16tik 25era.

Arcachonera irteera. Gazte Topaguneak antolatuta, hilaren 27an. Izen-ematea Topagunean asteburuetan ekainaren 17a baino lehen. (13-17 urte bitartekoentzat).

Izaskun Arriola dantza eskolaren ikuskizuna. Hilaren 26an.

Amaroz auzoko festak. Azken asteburuan izango dira.

UDALA ▶

Osoko bilkura gaur izango da, 08:00etan

Udalak ohiko osoko bilkura deitzen du gaur, 08:00etan udaletxean. Laskoraingo zabaldua eremuko arau subsidiarioen aldaketan (Iparragirre) dokumentazio osagarria; Leaburu-Txaramako Udalak eginiko eskakizuna, mugarritze prozedura abian jartzeko eta 2006. urteko Kontu Orokorraren onarpena izango dira gaiak, besteak beste.

KIROLAK ▶

Klub guztiei zuzenduriko bilera Usabalen

Usabal Kirolegia erabiltzen duten klub guztiei zuzenduta bilera egingo dute etzi, 19:00etan Usabalen. 2006-2007 denboraldiko balorazioak, 2007-2008rako proposameneak eta galde-erreguek osatuko dute bilera.

GENERO INDARKERIA ▶

Elkarretaratzea bi emakumeren erahilketagatik

Tolosaldeko Mundu Martxa-ko Plataformak deituta, gaur 20:00etan Triangulon elkarretaratzea egingo dute. Gasteizen eta Baionan izandako emakumeen erahilketak salatzeke.

GIZARTEA ▶

Ingurumenaren Egunaren harira, ekitaldi ugari

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna izango da gaur, eta hainbat ekitaldi antolatu ditu Udalak Aste berdearen baitan: 12:00etan, Plaza Zaharrean, Tolosako ikasleek klima aldaketari buruzko manifestua irakurriko dute, eta 18:00etan, Haur Liburutegiak antolatuta, Errotako parkean, ipuin kontakaria eta literatura-kometen tailerra izango dira. Antolatzaileek azaldu dutenaren arabera, «ipuinak hegan egingo dute gaztetxoek eginiko kometen bidez». Horretaz gain, *Tolosa berdez jantzita* lelopean, Udalak tolosar guztiak gonbidatzen ditu gaur kalera berdez jantzita ateratzera.

AISIA ▶

«Giro aparta» Ikastolaren egunean

Erredakzioa ▶ Herenegun ospatu zuten Laskorain Ikastolaren eguna eta bertan bildutakoek «egun paregabea» igaro zuten. Goizean bizikleta ibilaldia egin zuten, eta gurasoek egindako tortilla patatekin egin zuten hamaiketako. Jarrera jokuak antolatu zituzten. Haur hezkuntzako neska muien jaialdia eta gero, Laskorain Abesbatzak emanaldia eskaini zuen. Bazkarian 850 lagun elkartu ziren, eta ondoren «giro aparta» izan zen abestiak, pailazoak eta dantzaldia-ekin, besteak beste. HITZA



IKAZTEGIETA ▶

Herriko festak antolatzeke lehen bilera, gaur

Ikaztegietakoko festak abuztuaren 10a aldera izaten dira. Hauek antolatzeke bilerak egitea beharrezkoa da; horregatik, gaur 20:00etan elkartuko dira libururtegiaren lehenengo egiteko. Bertan, zer-nolako ekitaldiak aukeratu eta egunak zehaztuko dituzte, besteak beste. Bilerak, noski, irekia da, eta denen proposamenak izango dira baliagarriak.

ALEGIA ▶

Intxurreko neskek ez dute finala irabazi

Alegiko Intxurre areto futbol taldeko neskek ez zuten zorrea haien alde izan larunbateko finalean. Donostian jokatu zuten Altzakoek kontra, eta 2-1 galdu zuten. Irabazten hasi ziren, eta berdinketa izan zen ondoren. Partida bukatzen ari zela, epaileak izan ez zen penaltia ikusi zuen Alegiko taldearen aurka, eta hau sareetara sartu zen, garaipea Altzakoentzat izanik.



Senior mailako neskek, larunbateko finala jokatu ondoren. I. AZPIKUETA

ALEGIA ▶

Argazki proiektzioa etzi arte izango da

Alegiko Kultur Etxean, kultur eta kirol ekitaldi bereziak prestatu dituzte maiatzean zehar; lehengo asteko egun batzuetan zehar argazki proiektzio berezi bat izan zen: 1978. eta 1979. urteetako Langaurre eguna. Honen harri ona ikusita, mantendu egingo da aste honetan ere, baina etzi arte, arratsaldean zehar: 18:00etatik 21:00etara bitartean.

ALBIZTUR ▶ KULTURA

«'Bota patsa' izan da arrakastatsuen»

Alberto Labaka alkateak izan diren bi antzerkiak azpimarratu ditu, ia «lekuz eskas» ibili zirela gogoratu



Igandeko pilota partidetan ez zen nahi hainbeste jende bildu. E. EZEIZA

NEREA URBIZU

Albizturko Kultur Astea bukatuta, egun oraindik alkate den Alberto Labakak balantze «ona» egin du aurten ere. Arrakastatsuen, jendeari begira behintzat, Bota Patsa antzerkia izan da. Lekuz ere, «justu samar ibili ginen, 70-80 lagun elkartu ginen eta bertan».

Pilota partidetan jende gehiago espero zuten, baina

hala ere, hurbildu zen jendea. «Share erakustaldia izan zen, eta hasieran kosta egin zitzaion pixka bat jokalariei, ez baita trinketea, baina gutxinaka ohi-tzen joan ziren».

Idoia Sanchez ipuin kontalariak eman zion hasiera Kultur Asteari, eta umeak gustura izan ziren honekin. Bitartean, gurasoentzat hitzaldi interesgarria izan zen, eta bertara ere jendea hurbildu zen. Aurretik,

Kultur Astearen baitan sartzen ez bada ere, alkateak Orreagara egindako ibilaldia gogoratu zuten, 30 lagun joan zirenez.

Eskolako haurren antzerkiak ere jendea erakarri zuen beste behin: «Oso polita izan zela esan du jendeak, eta han ere jende asko izan zen».

Adin guztiei zuzendutakoak

07:30ean ibilaldirako jendea ere animatu zen, baina «ekitaldi honek muga batzuk ere bazituen, Ernio aldera joateko prestaketa pixka bat behar baita; sasoi pixka bat, alegia». Eguraldiak ere lagundu zuen igandean, eta ez zuen beraz, herriko mugak ezagutzeko ibilaldia zapuztu.

Ekitaldi guztiek ere adin guztietako jendea biltzekoak izan dira, eta «pozik» dago alkateak zentzu horretan, jendeak parte hartu duelako.

IV. HITZA PILOTA TXAPELKETA ▶



HITZA Txapelketako finalak San Joan inguruan izango dira. I. GARCIA

Gaur kadeteen final-laurdenak izango dira

Gaur eta bihar Beotibarren 22 urte azpikoek partidetan eskualdekoak ere izango dira

N. URBIZU

IV. Hitza Pilota Txapelketako final-zortziren batzuk jokatzeko ari dira dagoeneko; aste honetan, adibidez, benjaminen, jubenilen eta infantilen mailan finalerdietan zein ariko diren erabakiko da.

Kadeteen mailako final-laurdenak gaur Bidanian 19:00etan izango dira, eta hauek dira bertan jokatzeko dutenak: Olaetxea (Aurrera-Saiaz)-Irazusta; Jauregi-Bereziartu; Ezkurdia-Madariaga; Kruz-Jauregi. Lau norgehiago-

ka hauetan irabazle direnak hilaren 12ko finalerdietara pasako dira.

Gaur, Beotibarren 20:30ean 22 urte azpikoek partida gogorra izango da: Onsalo (Aurrera-Saiaz)-Iza eta Ongai-Huarte (Aurrera-Saiaz) aurrez aurre ariko dira.

Bihar, berriz, 20:30etik aurrera 22 urte azpikoek neurketak izango dira Beotibarren: Zelaia (Lizartzakoa)-Otxandorena Atxotegi-Linzoainen aurka eta bigarren partidaren, Aspe (Aurrera-Saiaz)-Diez eta Aizpitarre-Uzkudun.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ ARTISAU AZOKA



Artilea. Artilea tindagai naturalekin tindatu eta kolore ezberdinetako erakusketa jarri zuten artisau hauek. Bertan ikusi ahal zen bezala, tipula eta irabexa dira, besteak beste, artisau hauek tinkatetarako erabiltzen dituzten landare eta barazkiak. Artilearekin egindako poltsak salgai jarri zituzten. N. GARZIA



Okile tailerra. Okile tailerreko lagunak ere urtero bezala artisau azokan izan ziren igandean eta goiz osoan lanean aritu ziren. Gutun-azalak beraiek egiten dituzte, papera birziklatuz eta tindagai ezberdinekin kolore ezberdinak lortzen dituzte. N. GARZIA



Goiza. Goizean, meza ondoren, eguerdi partean, herriko jende asko bildu zen plazan artisauen eskulanak ikusteko asmoz. Azoka ikustera kanpotik etorri zirenak ere izan ziren. N. GARZIA



Arratsaldea. Plazan eta karrapean herritar ugari bildu ziren arratsaldean 17:00etatik aurrera. Karrapea, esaterako, 18:00ak aldera jendez gainezka egondu zen. N. GARZIA



Ukenduak. Artisauek egindako lanen artean, ukenduak ikusi ziren atzo karrapeko postu batean: erromeroarekin egindako ukendua, ilenarekin egindakoa, intsusarekin eta plantil belarrerakin egindakoa. Honetaz gain, San Joan ukendua ere ikusi ahal izan zen. N. GARZIA

Artisau gutxiago bildu dira aurten plazan

Zenbait artisauk aurretik esan gabe ez etortzea erabaki zuten eta beste urteetan baino hustuago egon zen plaza

NAIARA GARZIA

Igandeko artisau azokan antolatzaileek uste baino artisau gutxiago azaldu ziren. Orotara 27 izan ziren egun guztian zehar herriko plazan eta karrapean egon ziren postuak, baina berez 37k hitz emana zuten. Antolatzaileek azaldu dutenez 10 artisau aldeaz aurretik esan gabe ez ziren azaldu.

Ezusteko honek beste zen-

bait gauza baldintzatu zituen arren —80 artisauentzako hartuta zegoen bazkarian 60 elkartu ziren azkenean—, azoka giro onean igaro zen. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina euririk behintzat ez zuen egin, eta asko izan ziren goizean eta arratsaldean herriko plazara gerturatu zirenak, bai postuak ikustera, bai taloren bat dastatzera ere.

11:00ak aldera zabaldu zi-

tuen ateak azokak, baina lehenago ere zenbait herritar bazebiltzan zer suman. Eguerdian 14:00ak inguru arte egon zen zabalik, eta meza ondoren jende asko ibili zen. Arratsaldean, berriz, 17:00etan iriki zuten eta 19:30ak aldera artisauak gauzak jasotzen hasi ziren.

Egurra postu batean baino gehiagotan ikusteko aukera izan zuten atzo Leitza; bietan egurra landuz egindako ku-

txak eta apaintzeko objektuak zeuden; beste batean, aldiz, egurrarekin egindako zalditxoak. Zeramika ere postu batean baino gehiagotan ikusi zen, hautsontzi eta horrelakoekin, eta baita ontzi handiekin ere. Ukenduak, patchwork-arekin egindako kamisetak, larruzko pilotak, bitxiak, tindatutako artilea, koadernoak... izan ziren beste eskulan batzuk. Artisau batek imajinazioaren laguntza-

rekin artobizarrak eskulan bihurtu zituen.

Leitzako artisauak ere bertan izan ziren: Okile tailerra bere ohiko paper lanekin, Liño Putzu elkarte bere eskulaneekin, baita banaka joan ziren herritarrek ere.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

BESTELAKOAK

Giltzak. Leaburutik Belauntzarako bidean, Volkswagen auto baten giltza aurkitu dute. Bi aldiz joan da emakume bat Leaburuko tabernara giltza aurkitu ote duten galdezka. 627 36 98 87.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Hauteskundeak.

Maiatzaren 27ko Udal Hauteskundeetako emaitzak ikusgai dira gure webgunean. Sartu eta ikusi nork irabazi duen zure herrian.

LIZARTZA ▶ OMENALDIA



Gernikako Pablo Picasso kalean Gipuzkoatik joandako jendeaz gain, Busturialdeko herritarrek bildu ziren Zeberioaren omenaldian. HITZA

Gaur betetzen dira bederatzirte Ertzaintzak Ina Zeberio Gernikan tiroz hil zuenetik

Larunbatean eta igandean egin zizkioten omenaldiak jaioterrian eta Ertzaintzak heriotza eman zion lekuan, Gernikako Pablo Picasso kaleko 11. zenbakian

ASIER IMAZ

Gaur beteko dira bederatzirte, Ertzaintzak Gernikan, Iñaxi Zeberio Ina etakidea tiroz hil zuenetik.

1998. urtean hogeiti tiro inguru jaurtik zizkien ertzainek lizartzarrari, Pablo Picasso kaleko 11. portaleko etxebizitza batean. Urtemugaren atarian, pasa den asteburuan, hain zuten ere, Gernikan eta Zeberioaren jaioterria den Lizartzan, omenaldi ekitaldiak burutu zituzten.

Larunbatean Gernikako Pablo Picasso kalean ehun lagun inguru elkartu ziren eguerdiko 13:00etan. Urtero bezala, lore-eskaintza egin zioten bertara gerturatu zirenek. Bertsolariak eta hizlariak ere parte hartu zuten omenaldi ekitaldian. Ondoren, denak Gernikako Arrano tabernaren kanpora joan ziren, bertan antolatu zuten lunch-ean parte hartzeko asmoz.

Igandean, Zeberioaren jaioterrian antolatu zituzten bedera-



Lizartzan igandean egin zioten omenaldia monolitoaren aurrean. HITZA

tzigarren urteurrenako ekitaldiak. Goizean Axurdariora mendi martxa egin zuten 40 lagun inguruk, bertan lore eskaintza eginaz gogoratu zuten Zeberio.

13:00etan herrira jaitsi eta plazaren alboan dagoen monolitoaren aurrean elkartu ziren 200 lagun inguru. Ina Zeberioaren omenezko eskultura, bere irudia eta ikurrinaren aurrean, dantzariak emanaldia eskaini zuten. Ondoren, familia, lagun eta ezker abertzalearen izenean, dantzariak loreak jarri zituzten gerturatu zirenen txaloen artean.

Ekitaldian zehar, bertsoak, hizlariak eta Aimar Altuna eta Garikoitz Etxeberrria euskal preso politiko lizartzarren eskutitzak irakurri zituzten, besteak beste.

Bederatzigarren urteurrena ospatzeko antolaturiko ekitaldiekin amaitzeko, 14:30ean bazkaria egin zuten Lizartzako Txirrita Elkartearen. Bertan 50 lagun inguru elkartu ziren, antolatzaileen esanetan.

IBARRA ▶

Moto birako antolatzaileek «giro ona» goraipatu dute



Moto birako jaiak Lizarran. HITZA

A. IMAZ

Langostino Moto Kultur Elkarateak maiatzak 26an eta 27an eginiko moto biraren balorazioa egin du. Bertan parte-hartzaileei eskerrak emateaz gain, bizitako giro ona azpimarratu dute. «Larunbateko 15:00etan geratuta ginen Ibarako San Bartolome plazan. 12 moto eta 14 lagun bildu ginen eguraldi txarrari aurre egiteko asotan. Honela kafetxoa hartu eta besterik gabe uretako arropa jantzi eta poliki-poliki abiatu ginen Leizatzatik barrena Lizarrara. Eguraldia konstante izanda, Irurtzun herrian geldialdi bat egin genuen, gorputzean zerbait beroa sartzeko asmotan. Gorputza pixkat epeldu eta gero, Etxarriko bidea hartu eta Lizarrako kanpinera iritsi ginen 20:00etan».

Langostinokoek bertan eginiko festa eta Kanpineko arduradunen jarrera azpimarratu dituzte, giro onaren erakusle. «Kanpineko jendeak oso jator hartu gintuen. Honi esker, giro ezin hobea izan genuen bertan. Afaldu ostean mundu guztiak egiten duena egin genuen eta bigarren txupittoa hartu eta gero, gure laguna den Mikel Aragon gaiteak musean egin behar genuela esan zuten. Igandean, goizeko 09:30ean genuen gosaltzeko ordua, aurretik gehienak, ez denak, dutxatu eta txukundu egin ginen. Gosaldu ostean, bertako jendeari agur esan eta Lizarratik Opakuako bidea hartu genuen, bazkaria Olarraingo Lagun Artea elkartearen baita guren». Amaitzeko, partaide guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie.

KIROLAK ▶



Kirola kalera ateratzeko eguna, adin guztiei zuzenduta

Erredakzioa ▶ Tolosan, Altzon, Villabonan eta Anoetan ospatu zuten Kirola kalera ateratzeko eguna. Eguraldia egun horretan hobeia izan zen aste osoan egindakoa baino, eta lagundu zuen kasu batzuetan: baina, adibidez, Berazubi zelaian ez zen jende gehiegi

izan (eskuineko irudian). Ezin berdina esan Altzoz (ezkerreko argazkia). Bertako ibilaldia egiteko adin ezberdineko jendea elkartu zen. Anoetako jaiak zirela eta, egitarauaren barne sartu zituzten ekitaldiak, eta bertan jende gehiago ibili zen. IBON AZPIKUEJA

TRIATLOIA ▶

Zalakain zirkuituko lidergoan

Bigarrena amaitu zuen kirolari tolosarrak XII. Ondarruko Triatloian

ERREDAKZIOA

Iragan larunbatean XII. Ondarruko Triatloia izan zen, Gerardo Saiz, «Ondarruko triatloia-aren alma matera» izan zena-oren oroimenezko bigarrena izan delarik. Irabazleak, Virginia Berasategui (El Ambigu Triatlon Europa) bilbotarra, 2:08:44 eta Felix Javier Martinez (A.D. Triatlon Camargo) kantabriarra 1:54:01ko denborarekin izan dira. Egoitz Zalakain tolosarrak gizezkoetan bigarren bukatu zuen, eta lider jarraitzen du zirkuituan.

Distantzia olinpikoko (1.500m-40km-10km) lehen triatloia eta Euskal Herriko zirkuitoko denboraldiko bigarrena izan zen, Koaxi Urresti Triatloi Taldeak antolatuta. Arrigorri hondartzan kokaturik zegoen irteera lerroan denera 300 parte-hartzaile izan ziren.

Gizezkoen kategoria oso pakekatua izan zen. Felix Javier Martinezek uretatik hogeita hirugarren postuan irten zuen eta bigarren transiziora hirugarren postuan heldu zen. Oinezko azken segmentuan, Martinezek eta Zalakainek (Krafft-Aletiko S.S.) une horretan lasterketa buru ziren Jon Treku eta Francisco Pontanori aurre hartu zioten, helmugara lehen postuan Felix iritsi zelarik, eta minutu eta hogeita hamar segundora tolosarra. Hirugarren helmugan Treku izan zen.

Emakumezkoetan, hasieratik bilbotarrak lasterketa menperatu zuen. Ana Casares (Vale Egües Hiruki T.) izan zen bigarrena eta Inma Rafael (Bilbaotri T.T.) hirugarrena. Taldeka, berriz, Krafft-Aletiko San Sebastian izan zen bi kategorietan hoberena.



Egoitz Zalakain tolosarrak (ezkerrean) bigarren egin zuen. FESTAK.COM



XII. Ondarruko Triatloia-aren irteerako unea, larunbatean. FESTAK.COM

LEITZA ▶

Barriolaren eta Olaizola II.aren arteko finala, 17an

Hilaren 10ean zen jokatzekoa baina aldaketa Asegarce enpresak eskatu du

ERREDAKZIOA

Barriolak buruz buruko pilota txapelketa hilaren 17an jokatu du, eta ez 10ean. Olaizola II.ak eskatu du aldaketa. Jakina da Olaizolak Gonzalez-en kontra larunbatean jokatu zuela, eta epaileek dioten moduan, pilotariak finala jokatzeko egoera onean egoteko eskubidea dute.

Hortaz, epaileak onartu du eskaera, eta hasiera batean final handia 17an izango da. Egun horretan jokatuko ez balitz, beti ere final hori ezin- go da jokatu hilaren 23a baino beranduago.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leitza. Mendi Taldeak antolatuta, diapositiba emanaldia izango da 20:00etan, Kultur Astearen baitan; udaltxean, berriz argazki zaharren erakusketa izango da.

Lizartza. Udalak Uztaileko ludoteka antolatu du, 3-12 urte bitarteko umeentzat. Bertan izena emateko epea ekainaren 22a izango da, udaltxean. Begiraleak ere behar dira.

Tolosa. Sanjoanetako zezenketa ekainaren 17an izango da, igandearekin, Jesulin, El Cordobes eta Rivera Ordoñez toreatzaileekin. Sarrerak salgai Asteasuarrak, Fronton, Orue, Cantabrico eta 66 tabernetan eta zezen-plazan.

Tolosa. La Jara Extremadurako etxeak irteera antolatu du Toledora ekainaren 16 eta 17rako. Prezioa: 140 euro (pentsio osoa 4 izarreko hotelean). Izen-ematea, La Jaran (675 70 76 19).

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 5. 112.
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti.*
 21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia.*

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Umeek ederki igaro zuten azokan. IBON AZPILIKUETA



Herri kirolen erakustaldia egin zuten herriko plazan. I.A.

Igaro da lehen asteburua

ANOETA ▶ Herenegun Dantzari Txikien eta kirolaren eguna izan ziren; bihar txupinazoarekin bost eguneko egitarau zabalari emango diote jarraipena



Postu ugari ezarri zituzten goiz guztian zehar azokan. I. AZPILIKUETA

ERREDAKZIOA

Anoetan jaien lehen asteburu jendetsua igaro dute dagoeneko. Haatik, herritarrek ez dute kexatzeko aitzakiarik, oraindik ere aste bete ekitaldi dute aurretik. Herenegun Dantzari Txikien eta kirolaren eguna izan ziren, partaidetza altuarekin.

Dagoeneko lehen ekitaldiak egin dituzten arren, ofizialki bihar ekingo diete jaietxupinazoarekin.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Garazi (Aitzo). Gaur 6 urte. Muxu pila bat ebekoen partetik. Ongi pasa eta gozatu.



URTE ASKOAN
Oier (Gaztelu). Gaur 11 urte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaltxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...



IES Hernani BHI
 A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271
 K. LABAKA Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550
 e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com

ELEKTRIZITATEA
 Ekipo eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila)
 Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

MEKANIKA
 Mekanizazioa (Erdi Maila)
 Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa) (Goi Maila)

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 7ra

